

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

**93**  
positibo berri  
**1.206**  
positibo guztira\*

**52**  
hildako

**360**  
ospitalizatuta

\*Hernanin 28 Astigarragan 6

### NAFARROAN

**192**  
positibo berri

**130**  
hildako

**2.497**  
positibo guztira

**1.120**  
ospitalizatuta

Sendatuak: 2.165 EAEn; 236 Nafarroan.

## Elikagaiak premia larrian dauden 400 familiari, Elikagai Bankuaren banaketa aurreratuta

Hileko lehenengo astelehenetan egiten du normalean banaketa, Elikagai Bankuak, baina «egoera berezi honetan» aurreratu egin du. Astea bukatzerako banaketa egina izatea espero du. Udal langileak ari dira etxez etxe, banaketan.

HERNANI ELIKAGAI BANKUA

«Egoera ekonomiko larrian dauden herritarrei oinarritzko elikagaiak bermatzea» da Elikagai Bankuaren helburu nagusia, familia askok hilabete bukaerara iristeko dituzten zailtasunak leuntzeko asmoz. Normalean, banaketa hileko lehenengo astelehenetan egiten du, baina, konfinamenduaren ondorioz, «familia asko kalte ekonomiko haundiak jasaten ari da», eta horri aurre egiteko, banaketa aurreratu du.

Horrela, astelehenean, martxoaren 27an egin zen aurreneko banaketa. Udalak adierazi duenez, «elikagaiak helarazi zitzaizkien larrialdi egoeran zeuden 4 familiari». Horrez gain, hurrengo egunean etxez etxeko banaketarekin hasi ziren.

### Banaketa, ia 400 familiari

Etxez etxeko elikagai banaketan udal langileak ari dira laguntzen. Asteartean hasi zuten 393 etxeetara iristeko helburua

### Elikagai Bankuaren bidez janari kutxa jaso nahi duenak telefonoz deitu dezake, baina Hernanin erroldatua egon beharko du.

duen lana, eta astea bukatzerako bukatzea espero dute.

Normalean, erabiltzaileak izaten dira elikagaien bila joaten direnak, baina, konfinamenduan egonda, udal langileak ari dira etxez etxeko banaketan. «Egunean 80 bat etxetara» joaten dira.

Goizeko 08:00etan hasten dira banaketarekin. Erabiltzaileei etxe atarian uzten zaie kutxa, aldeztu aurretik telefonoz jakinarazita. Udalak ziurtatu du udal langileak «egoera honi dagozkion prebentzio neurriak hartuta» ari direla lanean.

### Premia duenak eskaera, telefonoz

Elikagai Bankuaren bidez herri-



Udal langileak ari dira Elikagai Bankuko kutxak etxez etxe banatzen.

tarrek jasotzen dituzten elikagaiak izaten dira lekariak, pasa, arroza, kakaoa, olio, esnea, atuna, sardinak eta gailetak. «Kutxa hauen bidez ez da dieta osasungarri osoa lortzen», azaldu du Elikagai Bankuak, «baina oinarritzko jakiak bematzen zaizkie».

Elikagai Bankuaren beharra duten herritarrek eskaera egin dezakete, telefono zenbaki honetara deituta: 617 29 62 14. Joxanen galdera egin behar dute.

Gogorazi dute elikagaiak jaso ahal izateko Hernanin erroldatuta egotea nahitaezko baldintza dela. **K**

## Zein bertso botako zenuke, sagardorik ez balego?

Txotx denboraldiarekin batean martxan jarri du Doberak, aurten seigarrenez, 'Bota bertsoa!' bertso-paperekin lehiaketa. Egoerak bultzatuta, bertsoak emailaz jasoko ditu, apirilaren 27ra arte.

URUMEA DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Badirudi bihozkada batek eraginda jarri zaiola gaia, aurten go *Bota bertsoa!* bertso-paperekin lehiaketari. Txotx denboraldia irekitzearekin batera martxan jarri zuen Doberak lehiaketa, seigarrenez, baina koronabi-

rusari aurre egiteko ezarritako neurriak medio, aldaketak egin behar izan ditu.

Hori horrela, eta sagardotegietan txotx egiteko aukerarik oraingoz ez dagoenez, bertso-paperekin emailaz jasoko ditu Doberak. Bertsoa nahi den doinu eta neurrian idatzi behar da, eta

egilearen izen-abizenak eta telefonoa jarrita, [dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus) helbide elektronikora bidali.

Parte hartzeko epea ere luzatu egin da: apirilaren 27ra arte jasoko dira proposamenak.

Gaia, berriz, ez da aldatu, eta gertaerei begira, ezin aproposago dirudi... *Sagardorik ez balego?*

Hortxe, proposamena. Txotx eginez ezin bada ere, agian etxean sagardoarekin topa eginda etorriko zaio baten bati etorria, edo abstinentziak esnaraziko dio barruko bertsolari sena! Modu batera edo bestera, animatzeko deia luzatu die herritarrei Doberak. **K**

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

**Eguneroko ogia beti bikain**

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Ezlaigo poligonoa - Tel.: 943 55 00 89

20120 Hernani

**Tripontzi**  
jatetxea

PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTZALADAK  
PLATER KONBINATUAK  
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI  
943 555 724

**AINHOA**  
Janaridenda

Nagusia 20, Astigarraga  
943 55 12 93

**Allianz**  
ASEGURUAK

bitritza -  
latriptak -  
ibiltzaleak -  
etxeak -  
komertzioak -  
enpresak -  
ardura zibila -  
finantz aseguruak -  
inbertsioak -

**agustin ezponda irizar**  
agentzia

Nagusia, 13  
Telf.: 943 55 73 26  
Faxa: 943 33 57 71



